

IHES-GELA

**BERDINTASUNAREN
ALTXORRAREN BILA**

AZAROAK 25



JARDUERAREN HELBURUA

Jarduera honen bidez, hurrei feminismoa eta genero-berdintasuna ulertzen lagundu nahi diegu, balio horiek gure jendartea nola eraldatu dezaketen erakutsiz.

Horretarako, esploratzaile bihurtuko dira, feminismoari eta berdintasunari buruzko funtsezko kontzeptuak deskubrituz. Genero-jarrerek neskengan zein mutilengan eragina dutela ulertuko dute, eta nola edonork jasaten dituen generoari lotutako presio eta estereotipoak, modu ezberdinean bada ere.

Dinamiken, jokoen eta erronken bidez, ihes-gelak, berdintasunaren, errespetuaren eta talde-lanaren balioak sustatzea du helburu. Haurrek jokaera matxistak beren eguneroko bizitzan antzemateko eta horren aurrean jarduteko gaitasuna emanez.



JARDUERAREN AZALPENA

Gaur egun, genero-desberdintasun ugari daude, baina badago sekretu handi bat: Berdintasunaren Altxorra. Zuen lana altxor hori aurkitzea eta irekitzea da!

Horretarako, erronkak gaintitu eta berdintasuna eta errespetua zer diren ikasi beharko duzue. Erronka bakoitzak altxorrera gehiago hurbilduko zaituzte.

Behin irekitzen duzuenean, mundua bidezkoagoa eta politagoa izango da guztiontzat. Zuen esku dago mundua toki hobea bihurtzea!

Adina: 7-12 urte bitartean.

Jardueraren iraupena: 2 ordu gutxi gora-behera.

Lekua: Leku itxi eta zabala izan behar du (gela handi bat, frontoia, kiroldegia etab.).



JARDUERAREN EGITURA

HASIERA

Parte-hartzaile guztiak puntu zentral batean elkartuko dira. Bertan ihes-gelaren helburua eta dinamika nolakoa izango den azalduko da. Taldeka banatuko dira eta hainbat erronka gainditu beharko dituzte genero-berdintasunari eta feminismori buruz ikasiz.

ERRONKAK

Ihes-gelak 4 erronka izango ditu, bakoitzak, helburu eta ikasketa ezberdina izanik. Erronka bakoitza genero-berdintasunarekin, errespetuarekin eta eskubideen aldeko borrokarekin lotuta egongo da. Halaber, denok elkarrekin lan eginda egoera horiek alda ditzakegula ulertuko dute.

PISTAK ETA AZKEN KODEA

Erronka bakoitza gainditzean, pistak jasoko dituzte. Pista guztiak elkartuz, azken kodea osatuko dute. Kode horrekin, Berdintasunaren Altxorra ireki ahal izango dute.

AMAIERA

Kutxa honek altxor txiki bat izango du, haurrek etxera eraman eta bizipen horren oroigarri gisa gordetzeko. Altxorra irekitzen dutenean, elkarlanean ikasitakoa partekatzeko eta hausnarketarako une bat sortuko da.



ERRONKEN GAIAK

1. Erronka: "Definizio orokorrak"

Jardueraren hasieran feminismoa ulertzeko funtsezko definizioak aurkituko dituzte. Adibidez: generoa, berdintasuna, feminismoa, etab. Hitz bakoitzaren esanahia ulertu eta horiek genero-berdintasunarekin nola erlazionatzen diren ikasiko dute.

2. Erronka : "Feminismoa ulertu eta mitoak desegitea"

Feminismoaren inguruko hainbat mito daude. Horregatik, garrantzitsua da emakumeen nagusitasunari buruzko mitoak desegitea eta berdintasunaren aldekoa dela ulertzea.

3. Eronka: "Egoerak identifikatzea"

Eguneroko bizitzan gertatzen diren egoera matxistak identifikatu eta emakume zein gizonei modu ezberdinean nola eragiten dieten identifikatzea.

4. Erronka: "Egoera horiek aldatzeko zer egin dezakegu?"

Aurreko erronkan identifikatutako egoera matxisten aurrean zer egin dezakegun pentsatzea. Guztiok eguneroko bizitzan berdintasuna eta errespetua nola susta dezakegun irudikatzea da helburua.



Jarduera honek, haurrek genero-berdintasuna modu dibertigarri eta aktiboan ikastea du helburua.

Esperientzia amaitzean, parte-hartzaile bakoitzak opari txiki bat jasoko du, berdintasunaren garrantzia gogorarazteko.



ERRONKARI AURRE EGITEKO PREST?

